

# POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA, KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEI BURUZ



**CREUP**

Coordinadora de Representantes de  
Estudiantes de Universidades Públicas



Posizionamendu txosten hau CREUPeko Zuzendaritza Batzorde Zabalduek proposatu du, baita zirriborroa idatzi ere; 2021eko uztailaren 22an onartu zuen Batzar Nagusiak, Salamancako Unibertsitatean egin zen 69. Ohiko Batzar Nagusian.

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>2</b>
<b>2. Aurrekariak</b>	<b>2</b>
<b>3. Funtsezko definizioak</b>	<b>4</b>
3.1. Praktika akademikoen kontrol hirukoitza	4
3.2. Praktika motak	5
<b>4. Praktika akademikoen erregulazio ereduak</b>	<b>5</b>
4.1. Unibertsitatearen erantzukizuna	6
4.2. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmena	8
4.3. Praktiken kontrola eta jarraipena	11
4.4. Kalitate agentzien eta instituzio publikoen inplikazioa	12
<b>5. Ondorioak</b>	<b>13</b>



## 1. Sarrera

Dokumentu honek Unibertsitate Publikoetako Ikasleen Ordezkarien Koordinazio Taldearen (CREUP) unibertsitate eremuko kanpoko praktika akademikoen inguruan duen jarrera jasotzen du, gaur egungo egoera azaltzen du, eta eraiki nahi den ereduaren oinarriak ezartzeko esparrua proposatzen.

Ikasleek egiten eta unibertsitateak gainbegirutzen dituen **prestakuntza jarduerak** dira kanpoko praktika akademikoak, eta ikasleei prestakuntza akademikoan jaso dituzten ezagutzak aplikatzeko eta osatzeko bidean laguntzea da haien helburua, **jarduera profesionalerako** prestatzen, lan merkatuan egokitzen eta ekimenerako gaitasuna sustatzen lagunduko dieten gaitasunak ahalik eta erarik errazenean bereganatu ditzaten.

Posizionamendu azalpen honetan Espainiako unibertsitate sistemaren (EUS) praktika akademikoei buruzko aurrekariak biltzen dira, baita horien ezarpena eta gaur egungo funtzionamendua ere, zeinak zenbait gabezia dituen, unibertsitateen kontrol faltak eraginda. Gauzak horrela, kanpoko praktika akademikoei buruzko definizio multzo bat aurkezten da, zenbait kontzeptu mugatu eta praktiken kalitatearen gaineko kontrol sistema bat ezartzeko asmoz. Azkenik, CREUPeko kideok erregulazio esparru bat proposatzen dugu, kanpoko praktika akademikoen prozesuek funtsezko zenbait gidalerro izan ditzaten, haien funtzionamendua eta kalitatea hobetzeko, unibertsitate sistemaren heterogeneotasuna aintzat hartuta, betiere.

## 2. Aurrekariak

Errealitate profesionalaren eta unibertsitate prestakuntzaren arteko sinergia areagotzeko asmoz, berrikuntza teknologikoa eta ikasketa planak Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparruak (GMHEE) ezarritakora egokitzeak eragin du unibertsitateek dezente titulazio gehiago eskaintzea. Gizarte errealitate horrek errealitate akademikoa lan munduaren errealitatera egokitzeko **premia larria** eragin du, eta kanpoko praktika akademikoek sekulako garrantzia hartu dute.



Gainera, egungo gazteen **langabeziak** eta gero eta zorrotzagoa eta baztertzailagoa bihurtzen ari den lan merkatura sartzeko zailtasunek eragin dute azken urteotan EUSeko ikasle gehienentzat lan mundura lehen aldiz sartzeko modu ia **bakarra** praktika akademiko horiek izatea. Aldi berean, azken hamarkadan Espainian bizi izan den krisi ekonomiko eta sozialaren eraginez, praktika horiek langileak **ordezteko** erabili izan dira sarri, ordainsari baxuekin edo ordainsaririk gabe eta erregulazio oso gutxirekin, eta albo batera utzi da praktiken prestakuntza izaera.

Halako praktika akademikoak arian-arian sartu dira **unibertsitatearen eskaintzan**. Areagotu egin da departamentuetako zenbait ikerketa ildotan edo unibertsitatearen eta enpresen arteko proiektuetan praktikak egiteko aukera. Hala, esperientzia profesionala testuinguru akademikora ere hurbildu da, ikasleek ikus dezaten ikerketan aritu daitekeela eta unibertsitatean lan egin daitekeela. Zoritxarrez, unibertsitate askok praktika akademikoak beraien idazkaritzetan, unitateetan eta zerbitzuetan egiteko aukera eskaintzen dute, eta ikasleek, gehienetan, beraien ikasketekin zerikusirik ez duen zerbaitetan egiten dituzte praktikak.

Horri guztiari gehitzen badiogu pandemiak langile asko **urrutiko lana** edo telelana egitera behartu dituela, argi ikusten da ikasleen praktika akademikoen kalitateak behera egin duela, eta agerian geratu da praktika horiek **arautze handiagoa** behar dutela, batetik, eta, bestetik, ikasketak, lana eta bizitza pertsonala hobeto uztartzeko beharra dagoela.

Gaur egun, kanpoko praktika akademikoek 592/2014 Errege Dekretuak xedatutako irizpideak bete behar dituzte, eta, ildo horri jarraikiz, Unibertsitateko Ikasleen Estatutuan adierazten da **ikasleek eskubidea dutela praktikak egiteko**. Errealitateak, aldiz, adierazten du gaur egun araudia asko aldatzen dela unibertsitate batetik bestera, eta araudi oso ezberdinak izan daitezkeela autonomia erkidego beraren barruan ere. Horregatik, Diputatuen Kongresuan zenbait legegintza ekinbide izan dira praktika akademikoiei dagokienez, zenbait lege proposamen eta 28/2018 Errege Lege Dekretua, Gizarte Segurantzako kotizazio gaii buruzkoa, besteak beste, baina **ez dute aurrera**



## **egiterik lortu.**

Ez da halako egoera bakarra Europan, eta kanpoko praktika akademikoen gaia horregatik bihurtu da European Students' Union (ESU) delakoaren lan ildo estrategikoetako bat. Elkarre horrek salatu du **ez dagoela kalitatezko lege esparrurik** GMHEEren parte diren estatu askotan halako praktikekin iruzur egitea saihesteko.

Beraz, CREUPen uste dugu beharrezkoa dela praktika akademikoetarako eguneratutako **esparru arautzaile** bat ezartzea, ikasleek beraien etorkizun profesionalean beharko dituzten gaitasunak eskuratzen dituztela ziurtatzeko, unibertsitateak kontrol handiagoa izan dezan, eta egindako lana behar bezala ordaintzen dela zaintzeko. Azkenik, praktika akademikoek lege babesa behar dute, praxi txarra galarazteko eta ikasleek eremu profesionalean eta sozioekonomikoan zein hezkuntzan dituzten eskubideak betetzen direla bermatzeko.

## **3. Funtsezko definizioak**

CREUPen uste dugu beharrezkoa dela posizionamendu azalpen honetan erabiliko diren kontzeptuak definitzea.

### **3.1. Praktika akademikoen kontrol hirukoitza**

Lehenik eta behin, praktika akademikoetan parte hartzen duten eragileak definitu behar dira, baita horiek duten kontrol hirukoitza ere, zeina gero aztertuko baitugu:

- **Praktiketako ikaslea:** ez du lan kontraturik, hezkuntza lankidetzarako hitzarmena baizik.
- **Tutore akademikoa:** unibertsitateko Irakaskuntza eta Ikerketako (IRI) pertsonaleko kidea da, eta praktikak behar bezala egiten direla zaindu behar du.
- **Erakunde laguntzaileko tutorea:** Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmena sinatu duen erakundeko langilea. Ikaslea prestatu eta haren lana gainbegiratu behar du.



Beharrezkoa da bekadunak eta praktiketako ikasleak argi eta garbi bereiztea. Izan ere, bekadunak unibertsitateko edo lanbide heziketako titulua dauka, eta, praktiketako lan kontratu bat duenez, soldata jasotzen du, eta Gizarte Segurantzari kotizatu. Halako kontratuak, ikasketak bukatu, eta bost urte geroago arte egin daitezke, eta sei hilabetetik bi urtera arte iraun dezakete.

### **3.2. Praktika motak**

Bestalde, Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak arautzen du prestakuntza proiektua, baita ikaslearen eta erakunde laguntzailearen arteko lotura nolakoa izan daitekeen ere. Ondoren, horretarako esparrua proposatzen da.

Azkenik, praktika motak definituko ditugu:

- **Curriculumetik kanpoko praktikak:** ikaslearen prestakuntza garaian, baina ikasketa planetik kanpo egiten diren praktikak dira; tituluaren gehigarri europarrean jasotzen dira. Borondatezkoak dira. Oro har, curriculumetik kanpoko praktikak ez dute curriculumekoak adinako kontrolik izaten, eta errazagoa izan ohi da iruzur egiteko erabiltzea.
- **Curriculum praktikak:** ikasketa planaren parte dira, eta bi motatakoak daude: nahitaezkoak eta hautazkoak. Nahitaezkoak egitea beharrezkoa da titulua eskuratzeko (dela unibertsitateak ezarritako irizpideengatik, dela tituluaren gaitzaileak ezarritakoengatik), hautazkoak konfigurazio askeko kredituetan eskaintzen dira. CREUPen uste dugu titulu guztiek gutxienez hautazko curriculum praktikak eskaini beharko lituzketela.

## **4. Praktika akademikoak arautzeko eredia**

Praktiken prozesu guztia, unibertsitateek praktiken eta ikasketa planaren kalitatearen gainean erakusten duten inplikazioa eta ikasleen ordezkarien eta kalitate agentzien parte hartzea aintzat hartzeko moduan proposatzen da praktika akademikoak arautzeko eredia, ikaslearen prestakuntza eta kontrol hirukoitzaren gardentasuna etengabe hobetu dadin.



## **4.1. Unibertsitatearen erantzukizuna**

Hasteko, unibertsitateak erakundeekin **hitzarmenen gutxieneko eskaintza adostua duela bermatu behar du**, eta ikasleei praktikak eskaini behar dizkie; horrez gain, lan egin behar du unibertsitatean bertan egin daitezkeen praktika akademikoak gehitzeko; hartara, ikerketa ibilbidea edo akademikoa sustatuko du. Kanpoko praktikak nahitaezkoan diren kasuetan, unibertsitateak ikasle bakoitzari praktika bat eskaini diezaiokeela bermatu behar du.

Horrez gain, ikasleei aukera eskaini eta erraztu behar zaie beraien kabuz erakunde batekin praktikak egiteko hitzarmen bat sinatzeko. Bestalde, beharrezkoa da erakundeekin eta administrazio publikoarekin elkarlanean aritzea **unibertsitate publikoetako** ikasleek lehentasuna izan dezaten praktikak aukeratzeko orduan, batez ere nahitaezko gaitze praktikak erakunde publikoetan egiten dituzten titulazioetako ikasleen kasuan.

Gainera, unibertsitatean edo zentroetan bulego bat izan behar da **praktika akademikoen koordinazioaz eta laneratze prozesua sustatzeaz** arduratuko dena, bai eta zuzendaritza taldean horren ardura izango duen norbait. Bulego horrek praktika poltsaren kudeaketa **egin ahal izateko beste langile** izan behar ditu, eta aholkularitza eskainiko die ikasleei, baita erakundeei ere, beraien ikasleen profil akademikoari dagokionez. Era berean, hitzarmenak formalizatzen ere lagunduko diete, edukia gainbegiratuko dute, eta baldintzak legearen arabera betetzen direla bermatu.

Halaber, titulazio bakoitzak praktika akademikoen **koordinazio lanak egingo dituen irakasle** bat izan behar du. Hark izendatuko du tutore akademikoa, eta ikasketa planen gaineko ardura duten organoetan parte hartuko du. Ildo horri jarraikiz, erakundeen oharrak komisio akademikoen bidez helarazi behar dira, edukien eta tituluan erabili beharreko tresnen **eguneratzea etengabekoa** izan dadin.



Irakasle koordinatzaileek **urteko txostena** prestatu behar dute, eta bertan jaso behar dute ikasketa plan bakoitzaren barruan egindako praktikei buruzko informazio guztia. Horrez gain, urteroko praktiken inguruko gogoeta sustatu behar da; horretarako, aipatutako informazio hori publiko egin eta zentroko batzordera eta halako organoetara zabaldu behar da, egin behar diren aldaketak proposatzeko.

Zentroari eta titulazioei dagokienez, praktika akademikoen egoera zein den ikertu eta horiei buruzko gogoeta egiteko prozesuan parte hartu behar du ikasleen ordezkariak ere, praktiken baldintzak hobetu, eta ikasleek jasan dituzten gehiegikeriak salatzen.

Ikasleak beraien praktika akademikoetan eta, geroago, lan munduan ondo sartu daitezten, unibertsitateak **ikasleak prestatu eta orientatzeko** baliabideak eskaini behar dizkie hasiera-hasieratik, curriculum bat osatzeko edo lan elkarrizketa bat egiteko, adibidez. Halaber, praktikan eta ikasketa planetan **gaitasun transbertsalen** inplementazioa sustatu behar da.

Horrez gain, **aukera berdintasuna** bermatu behar da, kanpoko praktika akademikoetarako aukera izateko eta horiek esleitzeko orduan. Horretarako erabiltzen diren irizpideak eta xedeak publikoak eta koherenteak izan behar dira, eta ez dute praktikak arbitrarioki edo ausaz esleitzen utzi behar; izan ere, pertsona eskatzailearen profilaren arabera orientazioa eskaini behar dute. Orobat, unibertsitateak ikasleei aukera eman behar die **prestakuntza programa osagarrietan** parte hartzeko, behar dituzten gaitasunak eskuratzen lagunduko baitie, edo unibertsitatean bertan praktikak egiteko, praktikak eteten zaizkien ikasleen kasuan.

Sistema osoak beti aintzat hartu behar ditu **desgaitasunen bat duten edo hezkuntza laguntzako behar espezifikoak dituztenak**. Unibertsitatearen ardura da praktika akademiko irisgarriak eta kolektibo horren beharretara egokituak eskaintzen dituzten entitateekin hitzarmenak sinatzea, pertsona horien enplegarritasuna indartzeko. Gainera, unibertsitateak bermatu egin behar du erakunde laguntzaileek bazterkeria, jazarpen eta indarkeria kasuetarako **jarduketa protokoloak** dauzkatela eta bete egiten dituztela.





## 4.2. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmena

Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmena ikasleak, unibertsitateak eta erakunde laguntzaileak egin behar dute, **elkarrekin**. Lankidetzari hori, ikaslearen **prestakuntza beharren** arabera izango da; erakundea da prestakuntzarako edukia eskaintzearen arduraduna eta unibertsitatearen egitekoa da praktiken helburu akademikoa mantentzea. Gainera, hitzarmen horiek ikasleen berezitasunak aintzat hartu behar dituzte, haien egoera sozioekonomikoak ez dezan eragin negatiborik izan.

Hitzarmenak sinatzen dituzten erakunde laguntzaileei dagokienez, unibertsitatearen arduraduna da haien **jardunbide egokiak** bermatzea, baita erakunde horiek azken 24 hilabeteetan lan eskubideen kontrako delituen batengatik, arlo profesionaleko arau hauste larriren batengatik edo bestelako delituen batengatik kondenatu ez dituztela ziurtatzea ere.

Hitzarmenaren giltzarria **prestakuntza proiektua** da; hura gauzatzeko, erakundeak ikasleak egin beharreko lanei edo bete beharreko eginkizunei buruzko programa bat aurkeztu behar du. Ikaslearen eta entitatearen arteko harremana ez da inolaz ere erakundeak bere gabeziak betetzeko erabiliko duen lan harreman bat izango. Hala, bada, tutore akademikoak adierazi behar du zein den **kalitatezko prestakuntza** ziurtatzeko jarraitu behar den bidea.

Egoera hori okerragoa da curriculumetik kanpoko praktikan, sarritan izaten baitira gehiegikerien iturri, eta prestakuntza albo batera utzi ohi baita. CREUPen praktika guztientzat arau berdinak ezartzea defendatzen dugu, izan curriculum praktikak izan curriculumetik kanpokoak, eta bietarako kontrol prozedura **bera izatea** nahi dugu, eta prestakuntza proiektuak arreta indibidualizatua izatea.



Praktiken modalitatea (presentziala, telematikoa edo hibridoa), haien iraupena eta ordutegia **malgua izan behar da ikasleentzat**, eta **bizitza akademikoa (ikasleen ordezkariak barne), pertsonala eta lanekoa uztartu ahal izateko modukoa**.

Proposatzen dugu ikasketa plana amaitu ondoren praktikak egiteko epea **hiru hilabete bitarte** luzatu ahal izatea; hala, praktikak egitea erraztuko da, batez ere bigarren edo hirugarren ikasketa ziklora igaro behar diren ikasleen kasuan. Era berean, praktiken ordutegia ez da 08:00ak baino lehen hasiko eta ez da 21:00ak baino beranduago bukatuko. Ordutegi horretatik kanpo aritu behar den kasuetan, **justifikatu egin beharko da**, eta bi alderdien artean adostu.

Gauzak horrela, ez litzateke **eskola edo ebaluazioaldian asteen 25 orduko muga** igaro beharko, ezta **asteen 35 orduko muga ere eskolarik gabekoaldian**. Oso garrantzitsua da ikasleek erakunde laguntzailearekin ordutegia adostu ahal izatea, hitzarmenean ageri diren bestelako ardura eta betebeharrak ere bete ahal izateko. Halaber, egun batean sobera egindako orduak hurrengo lanegunetatik kenduko dira, eta erakunde laguntzaileak bermatu beharko du ez dela praktika akademikoei egotz dakiekeen aparteko ordurik egingo.

Praktikak egiteak ezingo dio, inolaz ere, ikasleari **gastu ekonomikorik** eragin, bere jardura akademikoak eragiten dionaz gain. Horregatik, aseguruak harpidetzeko eta ordaintzeko araubidea ez da inoiz ikasleen kontura izango, **erakunde laguntzailearen edo unibertsitatearen ardura izango baita** beti horiek ordaintzea.

Ikasleek erakunde laguntzailearentzat egiten duten lana beraien gaitasunen araberakoa da, eta **balio erantsia** ematen dio. Praktikak egiteak gastu handiagoa dakarkio ikasleari, garraioan, mantenuan edo materialetan gehiago ordaindu beharko baitu; horrez gain, ECTS kredituei dagokien ordainketa ere egin beharko du. Ikasle batek bere ikasketa garaian praktika batzuk egin behar izateak eta praktika horiek ordaintzeko lanik egin ezin izateak **aukera kostu bat** du, eta bere diru sarrerak etetea dakar; horrek, aldi berean, **arriskuan jartzen du ikasleak praktikak egiten jarraitu ahal izatea**. Gainera, praktiketako ikaslearen figura izaten da lan mundura sartzeko lehen pausoa, eta



horregatik da hain garrantzitsua duintasuna eta balioa ematea.

Horregatik, CREUPen **praktika guztiak ordaintzeko beharra** defendatzen dugu, lan hitzarmenak lanpostu baliokidea duen langile batentzat ezarritako soldataren zati proportzionala, hain zuzen ere, eta inoiz ez lanean benetan emandako ordui legokiekeen lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoa. Ordainsari hori bat etorri behar da eskaintzen diren gaitasunen mailarekin, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruari jarraikiz (MECES), eta ez du bateraezintasunik sortu behar ikasketa bekak edota dirulaguntzak edo bestelako prestazioak eskuratzeko orduan.

Halaber, Osasun Zientzien adarreko titulazioetako derrigorrezko praktiken kasua berezia dela ulertu beharra dago, osasun erakundeei gastu horiei aurre egin ezin izateak eragiten dien gailak dela eta. Horregatik, beharrezkoa da administrazio publikoetatik behar sozioekonomikoak dituzten ikasleentzako laguntzak sustatzea, praktika horiek egiteko aukera izan dezaten.

Era berean, **Gizarte Segurantzaren sisteman nahitaez sartu behar dira** kanpoko praktika akademikoak egiten dituzten pertsona guztiak. Erakunde laguntzaile pribatuek kuotak ordaindu behar dituzte; hobaria izango dute, ordea, erakunde publikoek eta irabazi asmorik gabeko erakundeek, eta altei eta bajei buruzko prozedura laburtua ezarriko zaie. Gastu hori ez du inolaz ere unibertsitateak edo ikasleak ordaindu behar. Horrez gain, praktikak direla tarteko Gizarte Segurantzaren alta jasotzea **eta prestazioak jasotzea ez dira bateraezinak izango**.

Azkenik, antzinasuna zenbatzeko orduan, praktika aldia **aintzat hartuko da**, eta ikasleari erakunde berean beste postu batera igarotzea proposatzen bazaio lan kontratu baten bidez, probaldia **ezabatu** egingo da. Izan ere, eragotzi egin behar da unibertsitate graduatu bat urtez urte aldi baterako kontratuak bata bestearen atzetik kateatzen ibiltzea, zeinak ez baitio laneko segurtasunik edo egonkortasunik bermatzen. Praktikak administrazio publikoetan, zuzenbide publikoko erakundeetan eta bestelako erakunde publikoetan egitea merituzat joko da funtzio publikora sartzeko orduan, eta zenbatu



egingo da antzintasuna edo aurretiko zerbitzuen aitortzea egiteko orduan.

### **4.3. Praktiken kontrola eta jarraipena**

Praktiken jarraipena aurrez aipatutako **kontrol hirukoitzaren** arabera egin behar da. Beharrezkoa da erakundeak ikaslearen lana **etengabe gainbegiratzea**, gogaikarria izan gabe, baita unibertsitateak batak zein besteak bere lana egoki egiten duela egiaztatzea ere. Alderdi guztien arteko gardentasuna ezinbestekoa da.

**Tutore akademikoaren** lana da ikasleak egiten dituen lanak hark eskuratu behar dituen gaitasunekin bat egiten dutela **gainbegiratzea**, baita ikasleak praktikak eta bestelako betebeharrak uztartu ahal dituela zaintzea eta aholkuak ematea ere; esaterako, prestakuntzari, ordezkartzari eta ikaslearen parte hartzeari dagozkienak. Horrez gain, edozein gertakari jakinarazteko **tresnak eskaini behar dizkio** ikasleari.

Tutore akademikoaren beste egitekoetako bat da ikaslearen eta erakunde laguntzaileko tutorearen tarteko jarraipen txostenen eta bukaerako memoriaren **ebaluazioa** egitea, eta baloratzea behar diren **gaitasunak eskuratu** diren eta ikaslea eta erakundea nola aritu diren. Halaber, erakunde horrekin elkarlanean aritzeak tituluko ikasleek behar dituzten gaitasunak eskuratzeko balio duen eta etorkizunean erakunde horrekin hitzarmenak egiten jarraitzeak merezi duen aztertu beharko du. Horrez gain, ezinbestekoa da tituluaren arduradunak praktiketan egindako ebaluazio guztiak jasotzea eta balorazio orokorra batzorde akademikoari helaraztea eta **edukiak eguneratzea**, beharrezkoa den kasuetan.

**Erakunde laguntzaileko tutorearen** lana da praktiketan dauden ikasleak **gidatzea eta prestatzea**. Erakundeak baieztatu beharko du pertsona horrek praktika horien tutore izateko behar diren gaitasunak badituela eta **bere ordutegia ikaslearekin bat datorrela**. Erakunde laguntzaileko tutorearen ardura da ikasleari, praktikak egiten hasi aurretik, erakundearen antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea eta intereseko araudia ezagutaraztea, segurtasun eta lan arriskuen arlokoa, batez ere.

Horrez gain, tarteko jarraipen txostena eta praktiken bukaerako memoria **egin** behar ditu, non ikaslearen jarduna nolakoa izan den ebaluatuko den, eta praktiken hasieran



eta bukaeran ikasleak zituen edukien eta gaitasunen maila zer-nolakoa izan den. Hala, prestakuntza maila baloratu, eta unibertsitateari helaraziko zaio.

**Ikasleak** ere une oro jakin behar du praktiketari egiten ari den lana ongi egiten ari den edo ez, eta egiten duen **lanaren arabera** balorazioa jaso behar du. **Tarteko jarraipen txosten bat eta bukaerako memoria bat** egin behar du, eta baloratu jasotako prestakuntzaren maila eta erakundearen egin duen lana; orobat, erakunde laguntzaileko tutorearen parte hartzea eta laguntza ere baloratuko ditu.

Ikaslea praktikari egiten ari den bitartean erakunde laguntzaileak ikusten badu **ez dela gai** agindutako prestakuntza proiektua betetzeko, berehala jakinarazi behar die praktiketako ikasleari eta unibertsitateari. Gainera, kalte ordaina eman beharko dio ikasleari, eta unibertsitateak, bestalde, halako egoerarako ezarritako protokoloaren arabera jokatu beharko du; hots, erakunde horrekin duen lankidetzaren hitzarmena deuseztatu beharko du, eta ahalik eta lasterren bilatu beharko du alternatiba bat ikasle horrek behar dituen gaitasunak eskura ditzan.

Era berean, erakunde laguntzailearen aldetik adostutako baldintzak **betetzen ez badira edo praxi txarra** egiten bada, berehala eten beharra dago, eta eteten ez bada, hitzarmena deuseztatu eta ikasleari prestakuntza praktikoa bukatu ahal izateko **alternatibak** eskaini behar zaizkio. Horretarako, unibertsitateak **protokolo** bat landu beharra dauka, non jaso behar baitira halako kasuetarako jarraibideak, ikasleek jakin dezaten zer baliabide dituzten halako arazoak konpondu ahal izateko eta norengana jo behar duten.

#### **4.4. Kalitate agentzien eta instituzio publikoen inplikazioa**

Berreskuratu egin behar da **kalitate agentziek** kanpoko praktika akademikoetan zuten inplikazio maila. Irakaskuntzaren eta titulazioen etengabeko hobekuntza martxan jarri behar da alor horretan ere. Horregatik, praktikei buruzko **datuak eta txostenak** ere aintzat hartu behar dira unibertsitate titulu baten akreditazioa berritzeko orduan. Tituluen hobekuntzak erakutsi beharko luke ikasleek eremu profesionalean egiten duten lana gero eta hobe dela.



Horregatik, kalitate agentziek zaindu behar dute praktiken prozedura guztiak **behar bezala funtzionatzen** duela, hasi praktiken eskaintzatik eta memoria osatu arte, arreta berezia jarrita **kontrol eta zuzenketa** mekanismoetan. Orobat, aintzat hartu behar da **ikasleek zer iritzi duten** praktika akademikoek eta beraien titulazioak elkarren artean duten osagarritasunari buruz, eta iritzi hori eman dezaten sustatu behar da.

Halaber, prestakuntza horien **kalitatea eta legezkoatasuna** bermatzeko ardura dute **ministerio eta instituzio publiko eskudunek**. Beraz, praktika akademikoen errealitatera egokitutako **lan ikuskaritzen** gisako zenbait mekanismo garatu beharra dago. Izan ere, ikasleen errealitateak **lege zehatz batzuk** izatea eta eguneratzea eskatzen du, eta balio behar baitute beraien eskubide guztiak bermatu eta aurrez azaldu ditugun puntu guztiak aintzat hartzeko.

## 5. Ondorioak

**Lan prekarietatea eta gazteen langabezia** hain presente dauden egoera honen ondorioz, ikasle askorentzat lan mundura jauzi egiteko modu bakarra da praktika akademikoak egitea, eta sarritan kateatu ohi dituzte aldi baterako kontratuak, bata bestearen atzetik.

Praktikek **eragin onuragarria dute unibertsitateko ikasleen prestakuntzan**, eta, horregatik, ikasketa planetan garrantzi handiagoa izan behar dute, ikasleek behar duten ezagutza eta gaitasun egokiak eskuratu ditzaten, ez lan munduan sartzeko bakarrik, baizik eta gaitasun transbertsalak eskuratu eta talde lana sustatzeko.

Horregatik, funtsezkoa da praktiken **prestakuntza izaera** eta unibertsitateek egin beharreko jarraipena bermatzea, **praxi txarra eragozteko** eta ikasleen eskubideak ez urratzeko. Hori guztia **kontrol hirukoitzaren** bidez egin behar da, ahalik eta gardentasun handienaz eta kalitate sistemen bidez behar bezala ebaluatuta; gainera, ikaskuntzaren emaitzak eta ikasleen iritziak aintzat hartu behar dira.

CREUPek ezarritako helburu guztiak **erregulazio esparru berri** baten bidez soilik bete daitezke. Esparru berri hori homoginoa izan beharko du, eta ikasleen eskubide guztiak



# CREUP

Coordinadora de Representantes de  
Estudiantes de Universidades Públicas

**POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA,  
KANPOKO PRAKTIKA AKADEMIKOEI**

bermatu behar ditu. Horretarako, ikasleen ahotsa aintzat hartu beharko litzateke, eta eskuratu behar dituzten gaitasunak eskuratzeko malgutasuna eskaini beharko lieke, erakunde laguntzaileek ikasleak eskulan merke gisa erabiltzen dituzten iruzur egoerak galarazi ahal izateko.

CREUPen benetako **prestakuntza** izaera duten praktikak defendatzen ditugu, **kalitatezkoak** eta ikasleei **inolako kosturik** eragiten ez dietenak, ordainduak eta Gizarte Segurantzari kotizatzen dutenak.